



EBAZPENA, 2019ko martxoaren 22koa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena, 2018-2019ko ikasturtean unibertsitate- eta goi mailako beste ikasketa batzuk egiteko beka-deialdiaren eskaerak ebazteko 4. Behin-behineko proposamena egiten duena.

2018ko uztailaren 3ko aginduaren bidez (2018ko uztailaren 10eko EHAA), Hezkuntza sailburuak beka-deialdi bat egin zuen, 2018-2019ko ikasturtean unibertsitate- eta unibertsitatekoak ez diren beste goi ikasketa batzuk egiteko.

2018ko uztailaren 3ko aginduak 35. artikuluan xedatutakoaren arabera eratu diren hautespen-epaimahaiak banaka aztertu dituzte ebazpen honen I. eranskinean adierazitako eskaerak eta aipatutako eskaerei buruzko ebazpen-proposamena egin da.

Horregatik, aipatutako aginduan ezarritako prozeduraren gainontzeko arauak bete direnez,

EBAZTEN DUT:

Lehen artikulua.- Deialdi hori ebazteko 4. Behin-behineko proposamenaren berri ematea 2018-2019ko ikasturtean unibertsitate- eta beste goi ikasketa batzuk egiteko deialdian parte hartzen duten eskatzaileei. Eranskinean eskaerak, beka emateko edo ez emateko proposamenarekin batera, zerrendatzen dira. Proposamenak zehatz kontsultatzeko, eskatzaileek beren espedienteak Eusko Jaurlaritzaren beka-aplikazioan kontsultatu beharko dituzte.

Bigarren artikulua.- 15 egun naturaleko epe bat irekitzea, ebazpena egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, eranskinean aipatzen diren eskatzaileek beka emateko proposamenaren kontra alegazioak aurkezteko edo proposamena onartzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko martxoaren 22a.

Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria

MIREN ARTARAZ MIÑÓN